

Osasunkume

Bizitzaren Abentura



TB

12 BIDEOEN SAILARI BURUZKO

GIDA DIDAKTIKOA

Aurkezpena

Osasunkume, Bizitzaren Abentura balioetan hezteko eta osasunerako hezteko programa bat da, batez ere drogamenpekotasunen arazoa jorratzen duena, eta 6 eta 11 urte bitarteko umeei dago zuzenduta. Programa hau EDEXek bultzatu eta euskal ikastetxe gehienek garatu dute, eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzak eta prebentzio komunitarioko udal taldeek etengabeko laguntza eskaini diote.

Programaren oinarrizko euskarri didaktikoez gain, kromoalbumez gain, azken urteotan laguntza baliabide berriak garatu izan dira, batez ere ikus-entzunezkoak eta multi-mediak.

Gida honekin batera ateratako bideoak dira baliabide horietako bat. Bideo horietan hogeit hamar minutuko iraupena duten 12 istorio jaso dira, eta istorio horiek Osasunkumeren lau ardatzen inguruan garatutako topikoak jorratzen dituzte: Autoestimua (Norbera izan, Erronkei aurre egin), Bizitzarako trebetasunak (Tentsioa menperatu, Harremanak izan, Erabakiak hartu), Drogak (Medikamentuak, Alkohola, Tabakoa) eta Ohitura osasungarriak (Ariketa fisiko eta atsedena, Elikadura, Higienea, Segurtasuna).

Istorio horietan, umeen eguneroko bizimoduarekin lotutako gertaerak azaltzen dira hiru eszenatokitan: familiak, eskola eta auzunea. Gainera, ez da umorerik falta istorioetan.

Gida honek dagokion balidazioa dauka, eta, bertan, orientabide metodologiko orokorrak aurkituko dituzu, bai eta pelikula bakoitzaren inguruko saioak dinamizatzeko proposamen zehatza ere, hiru unetan sailkatuta: "motorrak berotuz", "ikustea" eta "iradokitako jarduera".

Aurkibidea

Orientabideak. 3

Bideoak:

- 1 “Jeinu bat egoera larrian” 5
→ norberaren buruarenganako errespetua]
- 2 “Hegan egiteko beldurrik gabe” 6
→ erronkei aurre egitea]
- 3 “Isilpean egiten den jaia” 6
→ tentsioa menperatzea]
- 4 “Guztiek dakiten sekretu bat” 7
→ harremanak izatea]
- 5 “Zure akatsak onartu” 8
→ erabakiak hartzea]
- 6 “Sendatu eta sendatu” 9
→ sendagaiak]
- 7 “Gehiegi zurrut egiteagatik” 10
→ alkohola]
- 8 “Kezko seinaleak” 11
→ tabakoa]
- 9 “Oporrak: sormenerako denbora” 12
→ jarduera eta hatzedena hartzea]
- 10 “Nire burua oso maite dut, gutxi...” 13
→ elikadura]
- 11 “Gerrikoak lotu” 14
→ segurtasuna]
- 12 “Gure auzoa garbi dezagun” 15
→ higiena]

Orientabideak

Gauza ez datza soilik bideoa aurkeztean. Haurrek Osasunkumeko protagonistek kontaktzen dituzten antzerako egoerei buruz mintzatzeko gogoak izateko giro aproposa sortzean dago koska. Bideoa aurkeztu aurretik eta hura aurkeztu ondoren egiteko diseinatu diren jolas eta ariketa batzuen laguntzaz, giro hau sor dezakezu.

Elkarrizketa osasuntsua da

Edozein elkarrizketa ona bezala, boluntario eta berezkoa izatea espero da. Izan liteke ere, haur bakoitzak bideoan ikusitakoa bere erara interpretatzea. Garrantzitsuena elkarrizketa lortzea da, eta ez pertsona guztiek gauza bakar batez konbentzitzea. Kontuan izan zuk diozuna besteekin lotuta dagoena, eta ez zure buruarekin.

Guztiak dira irabazle

Haurren eskutik, zu ere irakasle moduan, asko irabaziko duzu. Hauxe da Bizitzaren Abenturak eskaintzen dizun aukera zure ikasleek horietako irakasle serioa ez zarela ikus dezaten, baizik eta maitagarria den norbait. Konfiantza ematen duen pertsona, apala, "huts egin nuen", "ez dakit", "ikertuko dut" esaten dakien pertsona, barre egiten duena, eta, batez ere, egiten duenaz disfrutatzen duena. Zure ikasleekin harreman hobeagoa irabaziko duzu, eta horrek aldi berean sortzen duen atsegina.

Elkartze bat, hiru unean

Elkartzea, gutxi gora behera 90 minututakoa, hiru fase desberdin aurkezten ditu:

→ **Motoreak berotuz]**

Osasunkume egiteko ordua heltzen denean, bideoa aurkeztu baino lehen, haurrak erlaxatzen lagunduko dien ekintza batekin hasiko dira, eta aldi berean bideoaren bitartez landuko den gaian gutxika sartzen lagunduko die-na.

→ Ikuskaldia]

Bigarren fase honetarako telebista bat eta V.H.S. bideo bat lortu behar izango duzu. Gelako soinu eta argi egoera egokia dela segurtatu ezazu, eta zinta jar ezazu.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia. Bideoa bukatzerakoan, elkartzeko azken fase hau dator, non zintan garaturiko gai zentralarekin zerkusua duen esaldi bat lantzen den. Esaldi hau sakonki berrikusiko da proposatzen dizugun talde ariketa baten bitartez. Hemendik aurrera, elkarrizketa jarioko da. Zenbait xehetasun garrantzitsu:

1] Taldeak sortu. Elkarrizketa oihuka amai ez dadin, garrantzitsua da fase honetarako taldea beste azpi-talde batzuetan banatzea (gehienez 7 pertsonatakoa bakoitza).

2] Laguntza bilatu. Premiazkoa da azpi-talde bakoitzean moderatzaile bat egotea. Honetarako, beste gaietako irakasleekin ados jarri zaitez, edota zenbait guraso edo gazte gonbida itzazu. Ahal izanez gero, belarrihandiak bila itzazu, hitz egiten dutena baino gehiago entzuten duten horietakoak.

Oso garrantzitsua da moderatzaileek ekintza sakonki eza-gutzea, eta aldi berean, haurrak nola bizitzen jakitea. Entzuten, zenbait esaldi berreskuratu ditzakete, zer eta zelan galde dezakete, eta adibideak eska ditzakete. Arrunta da hurrek zerbait kontatzen dutenean, moderatzaileari soilik begiratzea. Kasu hauetan, moderatzaileak eskuhartze hauek zirkulatzen jarri beharko ditu taldeko beste kideen artean. Ez dute ezer ere erakutsi behar izango, baizik eta konfiantza sortu beharko dutela, elkarrizketa behar den bezala emateko. Modu horretan eskolako haurren bizietako istorio errealak entzungo dira, eta neska-mutilek denboraldi atsegina igaroko dute, gogoratzeko erraza.

3] Bilatu guneak. 7 pertsonatako bost talde, guztiek batera gela baten mintzatzeko, zoratzeko modukoa izan liteke. Horregatik, azpi-talde bakoitzari gune bat erraztu.

→ norberaren buruarenganako errespetua]

1 “Jeinu bat egoera larrian”

→ Motoreak berotuz]

Bideoa aurkeztu aurretik, 7 pertsonetako taldeak antolatu. Zuk eskatzen duzuna lehenbailehen egiten duen taldea izango da irabazlea. Zeren irabazle? Arazo hori zuri dagokizu. Baina ez zaitetz arduratu, sarritan txalo bero bat sari ona izaten da, edo kartoi mehe batean egindako taldeko “erbiak” direla jartzen duen entseina bat.

Eska iezaiezu berdinak diren bi motxila, lau txanpon eta belarritako pare lor ditzatela. Azkenik, pertsona berdin bi lor ditzatela eska iezaiezu. Ondoren, Bizitzaren Abenturako lehen kapitulua martxan jarri eta on egin.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Konparazioak higuingarriak dira.

Bideoa bukatu bezain laster, eguneko esaldia idatzi behar izango duzu eta berriz ere taldeak antolatu. Taldeko norbaitek jasan izan du konparazio higuingarriren bat? Istorioak entzuten dira, bat, bi eta hiru. Baldinbaitere produktiboa izango ahal da elkarrizketa hau! Bukatzeko, galde iezaiezu zein den Bart Simpson-en trebetasunik handiena eta bere ahultasunik handiena ere. Erantzun dezatela, eta gero utziezu bi minutu norbere trebetasuna eta ahulezia paperean idazteko. Bakoitzak idatzitakoa irakurriko du eta horri buruzko komentario laburra egingo du. Orain, denak desberdinak jai direla, edo beste munduko edozein tokitan haiek bezalako inor ez dagoela ospatzeko modu bat asma dezatela eska iezaiezu. Ospakizun horrek, futbol edo saskibaloiko zaleek egiten dutenaren antza izango du.

→ errenkoei aurre egin]

2 “Hegan egiteko beldurrik gabe”

→ **Motoreak berotuz]**

Nahi duzun bikotea aukeratu. Ondoren “Lazarillo”-ra jolastuko dutela esaiezu. Pertsona bat gidatzailea izango da eta bestea, begiak estalirik, gidatua izango da. Horretarako zapi handia eraman beharko duzu. Emaiezu espazio nahikoa eta taldeak isiltasun osoan egon beharko du. Pertsona bakoitzak beldur motaren bat sentitzen duenean zein den bere erantzuna ikustean datza ariketa hau. Txalo bero bat eskatu bikote horrentzat. Ondorengo bideoan gure beldurrei aurre egin dezakegula esaiezu, gure buruan konfiantza osoa edukiz.

→ **Proposatutako jarduera]**

Eguneko esaldia: Beldurrak gainditzeko garaia bada.

Bideoa bukatzerakoan, taldeak antolatu eta eguneko esaldia idatzi. Beldur handia sortarazten diona idazteko emaezu paper bana. Gero eska iezaezu boluntarioki idatzitako taldearen aurrean irakurtzeko, eta horri aurre egiteko zer egin zezaketen esanez. Amaitzeko, talde osoak beldurrik beldurgarriena aukeratu beharko du eta denen artean beldur hori gainditzeko plan bat diseinatu beharko dute.

→ tentsioa menperatzea]

3 “Isilpean egiten den jaia”

→ **Motoreak berotuz]**

Hizki bat aukera ezazu eta zure oroimenean gorde ezazu. Gero, zure ikasleei festa bat antolatzen ari zarela eta guztiak gonbidaturik daudela esaiezu, konpartitzeko edozer eramaten badute. Zer eraman lezake gonbidatu bakoitzak?

Galde iezaiezu. Zuk aukeratutako hizkiaz hasten diren gauzak eskaintzen dituztenak zure festara gonbidatuko dituzu. Besteei ezinezkoa dela esaeizu. Batzuk pozik geratuko dira eta besteak ez, ordea. Triste geratzen direnei lasai egoteko esaeizu, eta Bizitzaren Abenturako hirugarren kapitulua ikus dezatela.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Lasaitu zaitez...

Eguneko esaldia idatzi ezazu, Yolanda bere buruari errepikatu beharko liokeen esaldi bera delarik. 7 pertsonetako taldeak antolatu eta gehien haserretu dituen egoeraz pentsatzea eska iezaiezu, eta egoera horietan beroturik egin dutenari buruz, ondorioetan pentsatu barik. Honi buruz mintzatu eta, denborarik izanez gero, beste pertsoneri buruz mintzatzea egokia izango litzateke: Eguneko esaldia esatea gustatuko litzazukeen norbait ikusi al duzu? Zer uste dute gertatuko litzatekeela hori eginez gero?

4 → harremanak izatea]

“Guztiek dakiten sekretu bat”

→ Motoreak berotuz]

Zinta jarri aurretik, nahigabeen balitz bezala esamesa bat gelatik bota ezazu. Ikasle bat aukera ezazu eta goizean, hurrengo egunean eskolarik ez zela egongo entzun duzula esaiozu, baina inori ezer ez esateko eskatu. Gertatzen dena ikusi, eta gero, ezertaz jabetu ez zaren bezala, argiak itzali eta laugarren kapitulu hau ikusi.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Hitz egin baino lehen pentsatu...

Eguneko esaldia idatzi eta 7 pertsonetako taldeak antolatu. Zergatik da hain zaila sekretu bat gordetzea? Zein-

tzuk dira esan behar ez ditugun gauzak eta zeintzuk esan behar ditugunak? Talde bakoitzak honi buruz hitz egingo du eta sekretuak ondo gordetzeko "bostalogo" bat idatziko du (dekalogo baten ordeztu). Aholku erraz eta dibertigarri eta efektiboak. Behar denean ahoa ixten lagunduko gaituzte, eta behar denean ahoa zabaltzen.

5 → erabakiak hartzea] "Zure akatsak onartu"

→ Motoreak berotuz]

7ko taulan jolastea norbere akatsak onartzea zein erreza eta dibertigarria den erakutsiko die, eta zein puntutararte txarra den horiek ezkutatzea. Zazpi pertsona talde osoaren aurrean zirkulu bat egin dezatela. Zuk seinalea eman bezain laster, eskumatik kontaktzen hasiko dira. Zazpi zenbakia, zazpiren multiploa edo zazpi zenbakian bukatzen den zenbaki bat tokatzen zaion pertsonak, txalo bat emango du zenbakia ozenki esan ordeztu. Automatikoki kontua aurkako norabidean doa, eta ezkerreko pertsona jarraitzeko prest egon beharko du. Txalo egiten ez duena edo kontua jarraitzen ez duena jolasetik kanpo geratzen da.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Egindakoa egina dago...

Bideoa bukatzerakoan eguneko esaldia idatzi eta eztabai-detarako taldeak antolatu. Ondorengo egoerak aurkeztu ezkerre, bakoitzak egingo lukeenari buruz mintzatzea eskatu: (ongi tolesturiko paperetan idatzirik emaezu)

- 1] Zure lagunekin patioan jolasean zabilta eta, nahigabe, auzokoaren leihoa baloiaz apurtzen duzu. Etxe horretan une hartan ez dago inor eta ez da inor jabetzen, zu eta zure lagunak izan ezik. Zuk zer egingo zenuke?
- 2] Zure amak larunbata gauean gonbidatuak ditu. Esne gozokia erosi du postrean eskaintzeko asmoz. Zuk oso

atsegin duzu gozoki hura eta jatea erabakitzen duzu. Ostiral gauean zure amak ez du inondik inora aurkitzen. Etsita dago horren bila. Zuk zer egingo zenuke? Egoerari aurre egin edo ekidin?

Zuk asmatutako mota honetako beste edozein istorio baliagarri izango da haurrak kasu horiei buruz hausnartzeko.

→ **sendagaiak]**

6 “Sendatu eta sendatu”

→ **Motoreak berotuz]**

Arineketan hizki bat aukera ezazu eta denei paperean hizki horrekin hasten den izen bat, abizen bat, hiri bat eta botika bat idatz dezatela eska iezaiezu. Lehenengo amaitzen duenak “stop” esaten du ozenki eta beste guztiak gelditzen dira. Irakur dezatela eskatu eta ondoren idatzitako medikamenduak zertarako balio duen galdetu.

Ariketa bera bi hizki desberdin erabiliz egin ezazu eta ondoren Bizitzaren Abenturako 6 kapitulua jar ezazu martxan. Hori bai! Botikei buruz ezer ez dakitenak zoriondu itzazu. Hori botikari eta medikuen lana da.

→ **Propusatutako jarduera]**

Eguneko esaldia: Bakoitza bere zoroak bizi.

Eguneko esaldia arbelean idatzi eta lan taldeak antolatu. Zapatari batek botikak aginduko balitu eta mediku batek zapatak egingo balitu zer gertatuko litzatekeenari buruz mintza daitezela. Honi buruz apur batean txantxetan ibili ondoren, euren etxeetan norbaitek sukarra, buruko mina edo osasun arazoren bat duenean gertatzen denari buruz mintzatuko dira. Talde bakoitzak hurrengo galderari erantzunez bukatuko du elkarrizketa: demagun bihar zu gaitzotzen zarela, eta zure amak, aitak edo beste edozein pertsonak laguntzeko asmoz botikaren bat eman nahi dizula. Zuk zer esango zenioke?

“Gehiegi zurrut egiteagatik”

→ Motoreak berotuz]

Maite duten horri gauza politak idatziko diote. Horretarako, paper puska bat emaiozu parte-hartzaile bakoitzari. Kolore eta tamaina berberekoak. Zuk geroago bilduko duzun zerbait idatziko dutela esaeizu, baina inork ez duela jakin behar idazlearen izena, ezta irakasleak ere. Anonimoa da. Hiru lerrotan bakarrik atsegin duten neska edo mutilari maitasun esaldi bat idatziko diote. Amaitzerakoan paperak era berdinean tolestuko dute guztiek. Zuk guztiak poltsa batean sartuko dituzu eta zoriz haietariko bost ozenki irakurriko dituzu. Honekin apur batean zehar barre egiten dute eta hunkitzen dira, Bizitzaren Abenturako zazpigarren kapitulu hau ikustera sartzeko izotzaldia urtuz.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Askoren gaitza, inozoen kontsolamendua...

Bideoa amaitzean, eguneko esaldia idatziko duzu arbelean eta 7 pertsonatako taldeak antolatu. Hasi zaitezke alkohola mundu osoan gehien hartzen den droga dela esanez, eta arazo gehien sortzen dituen. Zeintzuk? Ikusi haurrek gaiari buruz duten ezagupena zein den. Ondoren haien artean alkohola hartzen duen familiako edo familiaz kanpoko ezagunen batek duen jarrerari buruz mintza daitezela: noiz egiten duten, zergatik, norekin, zein den haien jarraera, zer esaten duten, zer egiten duten. Jarraian, analizatu taldearekin esaldi osoa. Zelan interpretatzen dute neska eta mutilek. Haien artean alkohola hartu nahi duten ala ez eta zergatik esatea komeni da ere.

OHARRA: Elkartze hau gurasoentzat ere diseinaturik dago. Denbora nahikoaz programatu eta gonbidapen erakargarria bidaliezazu, etortzeko nahia pizten dien gonbidapena.

→ tabakoa]

8 “Kezko seinaleak”

→ Motoreak berotuz]

Motoreak berotzeko zortzigarren elkartze honetan, paper batean deskriba dezatela mota honetako musika entzuten duen halako pertsona bat: Rantxera, rock gogorra eta saltsa edo merengea Egun honetarako 15 segundotako grabazioa prestatu beharko duzu honako erritmo musikal bakoitzerako. Lehenengo paper bat emango diezu, 15 segundotan zehar musika jarriko duzu eta ondoren deskripzioa ahoz egin dezatela eskatuko diezu (gehienez minutu bateko iraupena). Horrela disko bakoitzarekin. Musika bakoitzerako egin diren deskripzioetatik nabarmenenak azpimarratu: “Rantxerak entzuten dituzten guztiak ez dira “charroak” eta ez dituzte lentejuelaz apainduriko txapel handiak erabiltzen”. Orokortasunen arriskua azpimarratu eta aurreiritziak nabarmendu. Ariketa honetan ez dira 15 minutu baino gehiago igaro behar. Ekintza itxi eta Bizitzaren Abenturako dagokion kapituluko zinta martxan jar ezazu.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Otsoekin dabilenak ez du beti ulu egi-ten ikasten.

Bideoa bukatzerakoan, eguneko esaldia idatzi eta eztabaidatzeko taldeak antolatu. Egokia da neskak, mutilak, amak eta aitak nahastea. Garrantzitsua da eztabaida honetan lagunak (kasu honetan otsoak) gurasoak izan litezkeela azpimarratzea, hau da, ama eta aita erretzen dutenean semeek ez dutela beti erre behar. Ideia zera da, lagun arriskutsuei buruz gehiegi ez pentsatzea, baizik eta pertsonak gure ekintzen gainean erabakitzekeo dugun ahalmenari buruz egitea. Bukatzeko, esaiezu otsoak animalien arteko gurasorik arduradun eta maitagarrienak direla, eta hauen kumeak guztietatik mimatuenak. Ez di-

tuzte inoiz bakarrik uzten. Biek (ama eta aita) laztantzen dituzte eta denbora osoan zehar maitasuna erakusten diete. Datu hau eskaini ondoren, pertsona bakoitzak bere auzokoari otso besarkada bat emango dio. Honela, eguneko esaldia beste bat izango da: "otsoekin dabilenak besarkatzen ikasten du".

OHARRA: Elkartze hau gurasoentzat ere bada. Denborarekin programatu eta gonbidapen erakargarri bat egin.

→ **jarduera eta hatzedena hartzea]**

“Oporrak: sormenerako denbora”

→ **Motoreak berotuz]**

Bazen behin EZ Jauna deitzen zen gizon bat. Irten naiteke? – EZ. Jolas dezaket? – EZ. Telebista programa alda dezaket? – EZ. Diru pixka bat emango al didazu? – EZ. Ume honek bere aita munduko gizonik aspergarriena zela uste zuen, eta agian, munduko gizonik tristeena zela ere. Orduan, egun baten galdetzea erabaki zuen: Aita... zoriontsua zara?- EEZZZZ. Zelan izango zara zoriontsu beti EZETZ esaten baduzu?, esan zuen mutikoak. BAI esaten ikasi beharko zenuke. Oso erreza da: "B" – "A" – "I", "BAI". Errepikatu aira: "BAI". Eta egun hartatik, EZ Jauna BAI Jauna bihurtu zen.

Ipuin hau haurrekin Ez ezazu testualki irakurri. Zure hitz propioez kontatu ezazu ipuina. Horrek emozio gehiago ematen dio. konpartitu, eta ondoren beti BAIETZ esaten zuen pertsona baten istorioa ikusiko dutela esaezazu, hain zuzen ere mutiko baten istorioa. Arreta handiz ikus dezatezela eska iezaiezu, ondoren apur batean mintzatu ahal izateko.

→ **Proposatutako jarduera]**

Eguneko esaldia: Jakitea eta ahaztea, ez jakitea bezala da.

Bideoa bukatzerakoan, eguneko esaldia idatz ezazu eta solasaldirako taldeak antolatu. Gero hurrekin zirikatu zure atzetik BAI... eta ondoren EZ... errepikatuz, behin eta berriro urduri jarri arte. Horri esker guztiok BAI eta EZ esateko ahalmena dugula erakutsiko diezu. Baina batzutan ez dugu gogoratzen noiz esan behar dugun BAI eta noiz EZ: jakitea eta ahaztea, ez jakitea bezala da. Honako honetan, zure laguntzaz hurrek esaldi hori ulertu ahal izango dute.

- 1] Azterketa bat egiten ari zara eta zure lagunminak ez du batere ikasi, beraz kopiatzen usten al diozun galdetzen dizu. Zuk zera esango diozu: BAI ala EZ. Zergatik?
- 2] Supermerkatu baten sartzen bazara eta zure lagunak zenbait goxoki poltsikoan sartzen dituela jabetzen bazara, inork ezar ikusten ez duen bitartean, zuek zera esango zenukete: BAI ala EZ. Zergatik?

10 → elikadura]

“Nire burua oso maite dut, gutxi...”

→ Motoreak berotuz]

Bizitzaren Abenturako hamargarren elkartze honetan gure buruari buruz dugun irudia berrikusiko dugu. Bideoa jarri aurretik, eska iezaiezu, bakarka eta idatziz, hurrengo galdera erantzutea:

Une honetan kapa misteriotsua duen gizon bat agertuko balitz, eta magia zuen gorputzeko zerbait aldatzeko aukera emango balizue, zer kendu edo ipiniko zenukete zuen gorputzetan? Zergatik? Inork ez du izena orrian jarri behar. Minutu baten erantzun dezatela.

Amaitu bezain laster, galde iezaiezu haien errua bada haien gorputzetik atsegin ez dute zera hala edukitzeagatik, eta ondoren paper hura apur dezatela eska iezaiezu. Prest daitezela Bizitzaren Abenturako kapitulu berri bat ikusteko.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Ni bai zoriontsu naizela daukadana-rekin.

Bideoa amaitzerakoan, taldeak antolatu eta eguneko esaldiak idatzi. Ondoren, bakoitzari kide guztiei zera azaltzea eska iezaiozu: norbere aurpegitik, gorputzetik eta nortasunetik zer duen atseginen, eta zergatik. Hau, bideoa ikusi aurretik egindako aurkako ekintza da. Azpimarratu arretaz entzun behar dutela, eta are gehiago, begirune osoz.

11 → segurtasuna]

“Gerrikoak lotu”

→ Motoreak berotuz]

Berotzeko, haurrak taldetan banatuko ditugu eta istripu itzela zehatz-mehatz presta dezatela eskatuko diegu. Talde bakoitzak ondorengo elementuetako bat aukeratzen du errezeta tragikoa prestatzeko:

- Beirazko botila bat
- Pospolo bat
- Semaforo bat gorriz
- Nasa edo espaloirik gabeko kale bat

Bost minututan “istripu” bat asmatu beharko dute beste kideei gero azaltzeko. Guztien artean hori zelan prebenitu ahal izango zen esan beharko dute.

Berehala ikusiko dugu Bizitzaren Abenturako azkenurren kapitulua eta hurrengo eztabaidarako prestatzen gara.

→ Propusaturako jarduera]

Eguneko esaldia: Ohartarazitako soldadua gudan ez da hiltzen.

Bideoa bukatzerakoan taldeak antolatu eta eguneko esaldia arbelean idatzi. Oraingoan, esan dezatela zeintzuk ohar jarriko lituzkete haien etxe, auzo edo eskolan istripuak pre-

benitzeko. Adibidez: kontuz, txakur arriskutsuak... edo geldi, ez sartu, ikasten ari naiz... edo agian: kontuz zulo-ooooaaaaaaaaa... Talde bakoitzak prebentzio seinale batzuk idatzi beharko ditu edozein tokitan arrisku gutxiagorekin bizi ahal izateko.

12 → **higienea]**

“Gure auzoa garbi dezagun”

→ **Motoreak berotuz]**

Bideoa aurkeztu baino lehen, haurrei istorio hau kontaiezaiezu:

Luz Holandaren lursailean astean birritan merkatu zentralean sortzen den zaborra botatzen dute. Bera oso pozik jartzen da, zabor hori barik bere enpresak ezin izango lukeelako aurrera jo.

Ondoren, hurrengo galderei buruz pentsatzera gonbida itzazu ikasleak:

Zein enpresa mota dauka Luz Holandak?

Zer motatako lursaila imajinatzen dute?

Zein izango ote da Luz Holandaren lanbidea?

5 minutu erabili aukerak entzun ahal izateko, eta ariketa hau itxi Luz Holandak Nekazaritzarako Ongarri Organikoak sortzen dituen enpresa duela esanez. Behar duen lehengairik garrantzitsuena, merkatu zentraleko plazan sortzen den zabor organiko begetala da. Esaiezu bere lursaila oso polita dela, ez dagoela eulirik, ez dago hatsik, eta zuhaitz eta animalia ugari daudela. Argiak itzali eta Bizitzaren Abenturako kapitulu hau martxan jarri.

→ **Proposatutako jarduera]**

Eguneko esaldia: Zaborrak: Batera, ez nahasturik.

Bideoa bukatzerakoan taldeak antolatu eta eguneko esaldia arbelean idatzi. Gero esaldi honek esan nahi duenari buruz hitz egin dezatela eskaiezaiezu.

Zergatik da garrantzitsua zaborra bereiztea?
Zelan bereizten dira?
Zure etxean zaborra batera edo bereizirik al dago?
Zer egin lezake pertsona bakoitzak bereizketa hura hasi
ahal izateko?
Mintza zaitezte horri buruz eta pertsona bakoitzak gero
eta zabor gutxiago sortzeko zer egin behar duenari buruz.

OHARRA: Elkartze honen aurretik, talde guztiarekin irteera bat antola
ezazu, hiriko zabortegira

→ **kredituak]**

© EDEX, 2016

Indautxu, 9 • 48011 Bilbao

www.edex.es • e-mail: edex@edex.es

Egileak: Gladys Herrera Patiño

ISBN: 84-9726-184-4

Osasunkume, Bizitzaren Abentura balioetan hezteko eta osasunerako hezteko programa bat da, batez ere drogamenpekotasunen arazoa jorratzen duena, eta 6 eta 11 urte bitarteko umeei dago zuzenduta.

Gida honekin batera ateratako bideoak dira baliabide horietako bat. Bideo horietan hogeitun bat minutuko iraupena duten 12 istorio jaso dira, eta istorio horiek Osasunkumeren lau ardatzen inguruan garatutako topikoak jorratzen dituzte.

Gida honek dagokion balidazioa dauka, eta, bertan, orientabide metodologiko orokorrak aurkituko dituzu, bai eta pelikula bakoitzaren inguruko saioak dinamizatzeko proposamen zehatza ere.